




EKONOMIA SENTIMENDUA

Ekonomia sentimenduak hobera egin du Eurogunean

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

ABUZTUKO DATUA


87,7




Europako Batzordeak argitaratzen duen sentimendu ekonomikoaren indizeak hobera egin zuen berriro abuztuan eta 87,7an kokatu zen, oraindik ere azken hogeitako bere batez bestekoaren azpitik, 100eko balioa hartzen baitu, baina aurreko lau hilabeteetako maila gaindituz. 2009ko atzeraldiarekin alderatuta, oraingo ezkortasuna orduan bizi izandakoaren antzekoa dela iradokitzen du, baina bihurtuaren malda gaur egun nabarmenagoa da, bai jaitsieran bai susperraldian, denboran eragin laburragoa izango duela adieraziz.

Atalez atal zehazten hasten denean, begi bistakoa da eraikuntzak atzean utzi dituela pandemiaren arazoak, eta kontsumitzailearen konfiantzak zein txikizkako merkataritzak baikortasunaren zati bat berreskuratu dutela. Beste aldetik, industriak eta zerbitzuek nabarmen hobetu dute beren balorazioa, baina batez besteko balioetatik urrun daude oraindik. Enpleguari dagokionez, aldagai horren adierazlea 89,6 balioraino hobetu da, hau da, birusa Europan zabaldu zen martxotik izandako daturik altuena jaso du.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Euroguneko bi potentzia nagusiak baikortasuna modu irmoan berreskuratzen ari dira. Hala, bai Alemania bai Frantzia 90eko balioaren gainetik daude jada, batez besteko baliotik gero eta gertuago. Alemaniaren kasuan, eraikuntzak eta txikizkako merkataritzak sendotasun nabarmena eskaintzen ari dira, eta, aldi berean, kontsumitzailearen konfiantza hobetzen ari da. Ahuleziak bere industria sektore indartsuan eta zerbitzuetan daude, bietan joera positiboa hauteman den arren. Frantzian, eraikuntzak ez du argi eta garbi aurrera egiten, eta industriaren eta zerbitzuen hobekuntza oraindik ez da nahikoa krisiaren aurreko balioetara itzultzeko.

Espainiak bi herrialde liderrek ez bezalako irudia eskaintzen du, eta abuztuan atzerapausoa eman zuen igurikimenak hobetzeko prozesuan. Zehazkiago adierazita, uztailean 90,6 izatetik abuztuan 88,1 izatera igaro zen. Industriak bere hobekuntza prozesuarekin jarraitu zuen pixkanaka, baina gainerako atalek okerrera egin zuten aurreko hilabetearekin alderatuta. Bereziki kezagarria da zerbitzuen posizioa (-38,3), batez besteko baliotik (6,3) oso urrun dagoelako. Italiaren kasua beste herrialde garrantzitsuen antzekoa da, baina maila nabarmen baxuago batean. Hala, abuztuan %80,6an kokatu zen, zerbitzuetan bereziki zailtasunak izanda.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Eurogunetik kanpo, Erresuma Batuaren kasua deigarria da, aipatu diren Europako beste herrialdeetako mailetatik urrun dagoelako. Hain zuzen ere, abuztuan 75,1eko marka egin zuen, uztailearekin alderatuta ia aldaketarik gabe. Herrialde horretako industriak uztailean baino irudi ezkorragoa eskaini du, eta zerbitzuetan egindako aurrerapen garrantzitsuek ez dute balio sektorearen egoera kezagarria makillatzeko. Kontsumitzailearen konfiantza ez da itzultzen eta txikizkako salmentak egoera normaltzat jotzen denetik urrun daude oraindik.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ERRESUMA BATUA



Iturria: Europar Batzordea.